



1HI-036/07-P05-A

TEODORO OLEA ITURREGI, EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETAREN
BATZORDEKO ARABAKO HIRIGINTZA PLANGINTZA ARLOKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Uztailaren 19an Arabako Hirigintza Plangintza Arloko 5/2007 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

“I. Okondoko udalerriko “Basauri Industria Poligonoari buruzko Plangintzako Arau Subsidiarioak Aldatzeko” espedientearen berri ematea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduaren maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen Lurraldearen Antolamendurako tresnetara, eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko uztailaren 16ko 5/1993 Legean adierazitako alderdietara egokitzearen inguruan, honako termino hauetan:

- 07.07.02ko datan idatzitako Uren Zuzendaritzaren txostenaren baldintza loteslea bete beharko da.

II.- Organo eskudunari igortzea, ziurtagiri honekin batera doan Uren Zuzendaritzak (I. eranskina) igorritako txostena, espedientea behin betiko onartzeko.”

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2007ko uztailaren 19an.

IDAZKARIA



Izta.: Teodoro Olea.